

**20/2025 TXOSTENA, IRAILAREN 5EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHO
LKU-BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA****XEDEA: GASTEIZKO HIRI-HONDAKINAK GAIKA BILTZEKO KONTRATUAREN
KOSTUEN EGITURARI ETA PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULARI BURUZKO
KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHO LKU-BATZORDEAREN BATZORDE
IRAUNKORRAREN 9/2025 TXOSTENARI BURUZKO ALDERDIAK****I. AURREKARIAK**

2025eko otsailaren 5ean, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren erregistroan sartu zen Vitoria-Gasteizko Udalaren («Udala») eskaera, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari («Batzordea») zuzendua, Vitoria-Gasteizko hiri-garbiketa publikoko eta hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko kontratuaren kostu-egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko txostena egin zezan, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko 2/2015 Legea garatzen duen 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikulua araberaren arabera («Desindexazio Legearen Erregelamendua» edo «Erregelamendua»).

Aurkeztutako dokumentazio guztia oinarri hartuta, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorraren 2025eko apirilaren 1eko bilkuran, 9/2025 txostena onartu zen, Gasteizko hiri-hondakinak gaika biltzeko kontratuaren kostu-egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzkoa.

Txosten horrekin batera aurkeztutako kontratua hutsik geratu zen lote guztietan, eta hala ezarri zen Udalaren 2025eko ekainaren 27ko Ebazpenaren bidez.

Egoera hori eta Garbiketa Publikoko Enpresen Elkarteak Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean kontratuaren aurka aurkeztutako errekurtoa kontuan hartuta, kontratuaren alderdi ekonomiko batzuk berrikustea erabaki zen.

Aldaketa horiek kostuen egitura eta prezioak berrikusteko formularen eragin ditzaketen aldaketen aurrean, Udalak erabaki zuen Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txosten osagarri bat eskatzea. Txosten hori 2025eko abuztuaren 1ean sartu zen.



Txosten honen helburua da eskaera hori betetzea, egindako aldaketak aztertuz eta egindako oharrekin bat datozela egiaztatuz.

Txosten hau kontratu honi buruzko 9/2025 Txostenarekiko modu independentean irakurri eta kontuan hartu ahal izateko ahalegina egin da, baina elementu formalen azalpen gehienak eta testuingurua emateko helburu nagusia dutenak saihestuz, 9/2025 Txosten horretan kontsulta baitaitezke.

II. ESKUMENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko Dekretua bigarrenaz aldatzen duen 154/2022 Dekretuaren bidez (2022ko abenduaren 28ko EHAAn argitaratua), hamabigarren xedapen gehigarria gehitzen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko 116/2016 Dekretuari.

Hamabigarren xedapen gehigarri horretan jasotzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrari dagokio Desindexazio Legearen Erregelamenduaren 9.7 artikuluari buruzko nahitaezko txostena egitea, hoguei eguneko epean, toki-erakundeen eta haien mendeko organismo edo entitateen txosten-eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Txosten osagarri hori egitea 154/2022 Dekretuak batzorde honi ematen dizkion eskumenen barruan dago.

III. VITORIA-GASTEIZEK ESKAINTZAK AURKEZTEKO BESTE ALDI BAT IREKI AURRETIK EGINDAKO ALDAKETEN AZTERKETA

III.1. Dokumentazioa

Vitoria-Gasteizko Udalak honako dokumentu hauek bidali dizkio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

- Kontratuaren preskripzio tekniko partikularren agiriak.
- Inbertsioa berreskuratzeko aldia justifikatzeko memoria ekonomikoa.

- Kostu-egituraren eta prezioak berrikusteko formularen proposamenaren txostena.
- Kostu-egituraren eta prezioak berrikusteko formularen proposamena onartzeko ebazpena.

Txosten hau egiteko, 9/2025 Txostena egiteko bidalitako dokumentuak ere kontuan hartu dira, konparazioak egiteko eta kontratuari buruzko informazioa osatzeko.

III.2. Aldaketa nagusiak

Kontratuaren alderdi orokorrak

Kontratuaren lehen lotea, prezioak berrikusiko dituen bakarra, aldatu egin da. Hurrengo taulan, aurretik erabili ziren balioak eta kontratuaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (LOA) kalkulatzeko egungo bertsioan erabili zirenak alderatzen dira (urteko kopurutan).

| Zenbatekoak eurotan eta haztapenak ehunekotan | Urteko zenbatekoa, aurrekoa | Urteko zenbatekoa, egungoa | Haztapena, aurrekoa | Haztapena, egungoa |
|---|-----------------------------|----------------------------|---------------------|--------------------|
| Langile-gastuak | 22.249.344 | 24.520.914 | 69,13 | 70,20 |
| Funtzionamendu- eta mantentze-kostuak | 3.103.562 | 2.120.281 | 9,64 | 6,07 |
| Gastu orokorrak | 1.262.101 | 1.718.879 | 3,92 | 4,92 |
| Beste kostu batzuk | 406.200 | 1.293.671 | 1,26 | 3,71 |
| Finantza- eta amortizazio-gastuak | 3.925.532 | 3.981.696 | 12,20 | 11,40 |
| Mozkin industrialak | 1.237.870 | 1.293.670 | 3,85 | 3,70 |
| <i>Guztira (esleipendunari urtero ordaintzea)</i> | <i>32.184.609</i> | <i>34.929.111</i> | <i>100,00</i> | <i>100,00</i> |

Ikusten da aldaketek kontratuaren elementu guztiei eragiten dietela, bai termino absolutuetan, bai erlatiboetan. Berezi eragiten diete funtzionamendu- eta mantentze-kostuen partidari eta beste kostu batzuen partidari. Ez dago funtsezko informaziorik berregituraketaren arrazoiak ezagutzeko. Balio horiek zehazteko metodoa txosten honen helburuaren osagarria denez, Batzordeak ez du horiei buruzko iritzirik eman nahi.

Harremanetan jarritako operadore ekonomikoei egindako eskaera, jasotako erantzunak eta Udalak zerbitzuaren kostu-egiturari buruz egindako proposamena

Izapide hori ez da errepikatu, espedienteko eskaintzak aurkezteko lehen fasea baino lehen operadore ekonomikoek emandako erantzunak baliatuta. Hurrengo taulak erantzun horien

balio nagusietako batzuk jasotzen ditu, baita Udalak proposatutako aurreko egitura eta oraingoa ere.

| <i>Ehunekotan</i> | Eragile ekonomikoen maila | Operadore ekonomikoen batezbestekoa | Proposamena, aurrekoa | Proposamena, egungoa |
|--------------------------------------|----------------------------------|--|------------------------------|-----------------------------|
| Langile-gastuak | 63,38 – 67,27 | 65,23 | 70,06 | 70,20 |
| Erregaiak eta lubrifikatzaileak | 4,59 – 7,40 | 5,81 | 5,36 | 3,66 |
| Mantentze- eta konponketa-zerbitzuak | 3,64 – 7,30 | 5,95 | 4,24 | 2,41 |
| Amortizazioa eta finantzaketa | 9,41 – 10,91 | 10,36 | 8,73 | 11,41 |
| Zuzeneko beste kostu batzuk | 3,64 – 4,35 | 3,94 | 2,36 | 4,92 |
| Gastu orokorrak | 4,00 – 5,45 | 4,82 | 5,25 | 3,70 |
| Mozkin industriala | 3,00 – 5,00 | 3,88 | 4,00 | 3,70 |
| <i>Guztira</i> | | | <i>100,00</i> | <i>100,00</i> |

Txosten hau egiteko bidalitako kostu-proposamenaren eta prezioak berrikusteko formularen txostenean ez da arrazoirik eman operadoreen erantzunetatik ondorioztatzen denaren eta azkenean proposatzen denaren arteko desbideraketetarako. 9/2025 Txostenean aztertutako kostu-proposamenaren eta prezioak berrikusteko formularen txostenean, honako hau adierazi zen desbideratzeak justifikatzeko: «[Udala] aurreko lizitazioen kostuen datu errealetan, horietan lortutako esperientzian eta 2006. urtetik azken urteetako prezioak berrikusteko espedienteetan oinarritu da».

1. oharra

Oro har, eta LOAren egitura kostuak berrikusteko erabiliko den egiturarekin konpara daitekeen tokiraino, antzekotasuna nabarmen handiagoa da haien artean kontratuaren aurreko bertsioan zegoena baino. Hala ere, Batzorde honek dibergentzia neurtzeko erabili dituen metodo guztietarako, operadoreek adierazitakoarekin bat ez etortzea handiagoa dela ikus daiteke.

A priori, badirudi hori ASELIPek Udalarari aurkeztutako demandei, neurri batean behintzat, erantzuteko espirituaren aurka doala. Hala ere, horiei buruzko informazio nahikorik ez dago puntu hori zehatz-mehatz baloratu ahal izateko.

Nolanahi ere, gomendio orokor bat egin dezake, operadore ekonomikoek kostuen egitura-proposamenetan eskaintzen duten informazioa hobeto integratzeko, ez bakarrik hura



kalkulatzeko, baita LOAraiko ere. Batzorde honen ustez, horrela jokatzek eragin dezake operadoreen proposamenen, LOAren eta azkenean onartzen diren prezioak berrikusteko kostuen egituraren arteko desadostasunak txikiagoak izatea, eta kalkuluak legitimatuago egotea lizitatzaileren ikuspegitik, horiek baitira, gutxienez, kontaktatutako operadore ekonomikoak.

Egoera guztietan komeni dena, operadoreen proposamenei eman nahi zaien protagonismoa gorabehera, operadoreekiko desbideratzeen arrazoia azaltzea da, eta kontratuaren egungo bertsioan ez du garrantzirik, LOAren eta kostuen egituraren artean.

Prezioak berrikusteko formularen kostu berrikusgarriak eta ez berrikusgarriak zehaztea

Ez da suposiorik aldatu 9/2025 txostenari dagokionez. Jarraian, txosten horretan jasotako berrikusgarritasunari buruzko taula jasotzen da.

| Kontzeptua | Berrikusteko modukoa | Berrikusteko ezintasunaren arrazoia |
|--------------------------------------|----------------------|---|
| Langile-gastuak | Bai | |
| Erregaiak eta lubrifikatzaileak | Bai | |
| Mantentze- eta konponketa-zerbitzuak | Bai | |
| Amortizazioa eta finantzaketa | Ez | Ezin dira berrikusi definizioz. |
| Zuzeneko beste kostu batzuk | Ez | Gastu orokorrak edo egiturazkoak dira nagusiki, eta ezin dira definizioz berrikusi. |
| Gastu orokorrak | Ez | Ezin dira berrikusi definizioz. |
| Mozkin industrialak | Ez | Ezin dira berrikusi definizioz. |

2. oharra

9/2025 txostenean adierazten den bezala, Desindexazioari buruzko Legearen 9. artikulua adierazten du prezioak berrikusteko formularen kontuan hartu beharreko osagaien izaera errepikaria justifikatu beharko dela; izan ere, berrikus daitezkeen kostu bat errepikaria bada soilik berrikusi ahal izango da.

Prezioak berrikusteko formula

Ez da funtsezko aldaketarik egin prezioak berrikusteko formulatan, koefizienteek birkalkulatutako balioak hartuko dituztela alde batera utzita.

Udalak proposatzen duen berrikuspen-indizea kalkulatzeko formula honako hau da:

$$P_t = A \times (S_i/S_o) + B \times (M_i/M_o) + C \times (E_i/E_o) + D$$

Prezio-formula hori Udalak ordaindutako urteko prezioari aplikatuko zaio.

A, B, C eta D koefizienteek Udalak formula horretarako erabiltzea erabaki duen kostu-egituraren proposameneko kontzeptu desberdinen balioak hartzen dituzte, hamarren bat eta lau hamartarrekin. Honako hauek dira, hurrenez hurren: eskulana ($A = 0,7020$), erregaiak eta lubrifikatzailak ($B = 0,0241$), mantentze-lanak eta kontserbazioa ($C = 0,0366$) eta berrikusi ezin diren kostuak ($D = 0,2373$; berrikusi ezin diren kostu guztiak gehitzearen emaitza).

Udalak honela definitzen ditu formularen aldagaiak:

- S: Enpresaz gaindiko eremuko batez besteko soldata-aldaketa metatua, «Hondakinen bilketa, tratamendua eta ezabaketa» 38. dibisiokoa, kontratua formalizatzen den hilabetetik prezioa berrikusten den hilabetera arte.
 - Datuaren iturria: [Estatistikak](#), [Lan Merkatua](#), [Lan Baldintzak](#) eta [Lan Harremanak](#), [Lan Hitzarmen Kolektiboak](#) eta [Lan Harremanak](#), [Lan Hitzarmen Kolektiboak](#) (Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa))
 - Honako hau ere adierazten da: «datu estatistikoa urteko aldakuntza denez, urtekotasun bakoitzean igarotako hilabeteen proportzioan kalkulatu da».
- M: ekipoen mantentze-kostuen indizearen balioa, berrikuspena edo formalizazioa egin aurreko hilean.
 - Datuaren iturria: [Klaseen indize nazionala \(harmonizatuak, 2015 oinarria\)](#), [0722 Ibilgailu pertsonaletarako erregaiak eta lubrifikatzailak \(EIN\)](#)
- E: erregai-kostuen indizearen balioa, berrikuspena edo formalizazioa egin aurreko hilean.
 - Datuaren iturria: [Klaseen indize nazionala \(harmonizatuak, 2015 oinarria\)](#), [0723 Ibilgailu pertsonalen mantentzea eta konponketa \(EIN\)](#)

Ez da P terminoa definitu; definizioa, adibidez, «berrikuspen-indizearen balioa» izan zitekeen.

Azpiindizeek, bestalde, honako hau adierazten dute:

- t: lotutako magnitudea aplikatzen den kontratu-urtea.
- i: azpiindizean adierazitako kontratu-urteari lotutako prezioak berrikusteko unea.
- 0: kontratua formalizatzeko unea edo eskaintzak aurkezteko epea amaitu zenetik hiru hilabete igaro diren unea, lehenago gertatzen dena.

Berrikuspena, ustez, urtean behin egingo da, eta berrikuspena edo formalizazioa egin aurreko hilean argitaratutako datua hartuko da kontuan, baina ez da zehaztu.

Gainera, adierazten da, Desindexazio Legearen Erregelamenduaren 5. artikulua betez, a) formularen aplikatutako soldata-aldaketa ezin izango dela inoiz sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariaren igoera baino handiagoa izan.

Gainera, Udalak adierazi du formularen aplikazioa mugatuta egongo dela zenbait inguruabarretan. Horiek Desindexazio Legearen Erregelamendutik eta SPKLtik eratorzen dira (bi arauak kontraesanean daudenean, SPKL mailaka lehenesten da), eta honako hauek dira:

- Gutxienez urtebete igaro izana kontratua formalizatu zenetik.
- Kontratuaren zenbatekoaren ehuneko hogeiei, gutxienez, gauzatuta egon behar da.

Horren ondorioz, kontratua modu uniformearen eta aurreikuspenetara egokituta gauzatzen bada, ezin izango da inolako berrikuspenik egin berrikuspenaren xede den sortaren bi urte edo ehuneko hogeiei igaro arte.

3. oharra

9/2025 txostenean ondorioztatu zen Srako datuaren iturria oker adierazi zela, ezin baita lortu aipatutako datu-basean metatutako batez besteko soldata-aldaketaren daturik. Ikusirik Udalak behin eta berriz aipatzen duela hori erabiltzea, ondorioztatu behar da benetan Udalak «itundutako batez besteko soldata-aldaketa» lortu nahi duela, existitzen baita, eta «metatutako batez besteko soldata-aldaketa [itundua]» sortu nahi duela.

Beraz, asmoa ez denez balio hori datorren bezala txertatzea, baizik eta lehenago aldatzea, ez dirudi formula interpretatzeko arazo berberak daudenik urtez urte igoera bat txertatu nahi denean, non indize bat beharko



litzatekeen. Alderdi hori Batzorde honek adierazi du kostuen egiturari buruzko txosten gehienetan.

Hala eta guztiz ere, M eta E koefizienteetarako zehaztutako iturri beretik lor daitekeen datua denez, kostu forma duenez (ondorio guztietarako indize gisa joka daiteke, bitarteko kalkulurik gabe), sarriago argitaratzen denez eta datua igarotako urteko hilabeteen arabera hainbanatzeko beharra ezabatzen edo minimizatzen duenez, zentzuzkoagoa dirudi 9/2025 txostenean egindako S iturriaren interpretaziora jotzea («Langile bakoitzeko lan-kostua, EJSN-09 – 38 Hondakinak biltzea, tratatzea eta ezabatzea; balorizazioa – Guztizko soldata-kostua (EIN)»).

4. oharra

Komenigarria litzateke Udalak adieraztea nola jardungo duen prezioak berrikusteko erabili nahi den datua ez badago argitaratuta berrikuspenaren unean, datu mota hori «atzera begira» argitaratzen baita, eta beti ezin baita jakin aurreko hilekoa zein den berrikuspena egin nahi denean.

5. oharra

Ez da aipatzen prezioen berrikuspena inbertsioa berreskuratzeko aldia soilik gertatuko denik. Inguruabar hori, aipatu direnekin batera, Udalak aipatutako arauetan agertzen da. Prezioen berrikuspena mugatzen duten inguruabarrak esplizituki aipatzea ezinbestekoa ez dirudien arren, publikoak direnez eta legez ezarrita daudenez, berrikuspen-mugen zerrenda osatu gabe egiteak nahasgarri bihur lezake zerrenda horrek agortu egiten dituela kontuan hartu beharreko inguruabar guztiak.

Inbertsioa berreskuratzeko aldia eta prezioak berrikusteko aldia

Inbertsioa berreskuratzeko aldia kalkulatzeko, udalak bere memoria ekonomikoan aurkeztutako datuetara jotzen du, hamar urterako mailegu bat barne, ehuneko 4ko interes-tasarekin, esleipendunak kontratuaren hasieran egin beharko duen hasierako inbertsioa finantzatzeko. Datu horiei kutxako fluxuetarako deskontu-tasa gehitu behar zaie, ehuneko 5,00616. Tasa hori Desindexazio Legearen Erregelamenduaren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da, eta azken hilabetea 2025eko maiatza izango da.



Inbertsioaren berreskuratze osoa, gutxi gorabehera, kontratuaren hamargarren eta azken urtearen une batean egingo dela erabaki da. Bi ondorio esanguratsu daude: alde batetik, inbertsioa berreskuratzeko aldia bost urtetik gorakoa dela, desindexazioari buruzko araudiak eskatzen duen bezala, prezioen berrikuspena erabiltzeko zerbitzuen egungo kontratua bezalako kontratuetan; eta, bestetik, kontratuaren prezioak berrikusten hasten direnean, kontratuaren azken urtera arte berrikusten jarraitu ahal izango dela, betiere exekuzioa ez bada desbideratzen Udalaren estimaziotik.

Laburbilduz, eta txostenaren beste atal batzuetan aipatutakoa kontuan hartuta, kontratuaren lehen lotean prezioak berrikustea bidezkoa dela ikusten da, eta kontratuaren hirugarren eta hamargarren urteen artean egingo dela uste da, biak barne.

6. oharra

Duela gutxi, Batzordeak ikusi du Desindexazio Legearen Erregelamenduaren artikulua hitzez hitz irakurriz gero, debekatuta dagoela ibilgetua erostearekin lotutako finantza-gastuak kutxako fluxuetan sartzea inbertsioaren itzultze-aldia kalkulatzeko: «... [Urte bakoitzeko kutxa-fluxuak] ez ditu barne hartuko finantzaketa-jardueretatik eratorritako kobrantzak eta ordainketak» (10.2 artikulua). Beraz, badirudi kutxa-fluxuetatik kanpo utzi behar direla ibilgetua finantzatzeko egindako maileguaren amortizazioak (Udalak egindakoarekin eta Batzordearen aurreko irizpidearekin bat datorrena), eta inbertsio horri lotutako interesak ere bai.

Batzordeak simulazio bat egin du irizpide berri horren arabera, eta Udalak aurkeztutako gainerako elementuak mantendu ditu. Halaber, inbertsioa kontratuaren zortzigarren urtean berreskuratuko dela lortu du. Ondorioz, prezioak berrikusteko formula bat ezartzea ahalbidetzen duten baldintza objektiboak betetzen jarraitzen bada ere, litekeena da berrikuspen hori kontratuaren hirugarren eta zortzigarren urteen artean bakarrik egin behar izatea, biak barne; emaitza hori ez dator bat udalak orain arte lortu duen hirugarren eta hamargarren urteen arteko berrikuspenarekin.



IV. ONDORIOAK

Gasteizko hiri-garbiketa publikoko eta hiri-hondakinak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzu-kontratuaren kasuan, txosten honetan aztertu da zenbateraino betetzen diren Sektorre Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legea, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legea eta 2/2015 Legea garatzen duen 55/2017 Errege Dekretua, kostuen egiturari eta prezioak berrikusteari buruzkoak. Hainbat gomendio aurkeztu dira, baita konpon daitezkeen zenbait elementu ere, eta nagusia inbertsioa berreskuratzeko aldia zenbateteko erabilitako kutxa-fluxuen kalkuluan finantza-gastuek duten presentziari buruzkoa da.

Ondorioz, kontratu horri buruzko txostena egin da, 2025eko apirilaren 1eko 9/2025 txostena osatzen duena.